

EUSKO JAURLARITZAKO INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILEKO GIPIZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZARI:
(Easo kalea, 10. 20006-Donostia)

Erreferentzia: "Ikatz Gane Parke Eolikoa" proiektuari alegazioak
Espedientea: 20-GE-Y-2024-00006

Behean sinatzen duen pertsonak, izen eta abizenak,
NAN zenbakia, eta jakinarazpenetarako helbidea,
....., herria, Posta Kodea duenak,
egun informazio publikoan den Hernani udalerriko (Gipuzkoa) "Ikatz Gane Parke Eolikoa" izeneko
proiektuari eta haren ebakuazio-azpiegituraren egitasmoari honako **ALEGAZIO** hauek egiten dizkio:

ESKALA HANDIKO PROIEKTU MASIBOEI BURUZKOA

Proiektu honek bultzatzen duen eredu desarrollista eta erraldoiak ez du ahalbidetzen bertako energia kudeaketa eta komunitarioa bultzatzea. Azken urteotan instalazio eoliko eta fotovoltaikoak jartzeko dagoen eskaera masiboen eta konexio baimenen atzean espekulazio handi bat sortu da, berriztagarrien burbuila bat alegia. Hedapen zabal hau enpresa handien mesedetan bultzatzen da benetako beharrei eta plangintza orekatu bati erantzun gabe. Ezin da onartu gure inguru naturalak enpresa handi hauen interes eta irabazietarako sakrifikagarriak izatea.

MENDIAREN ETA BAILARAREN INDUSTRIALIZAZIOARI BURUZKOA

Eskualdearen nortasuna mendiaren baitan dago eraikia, paisaiaren balio kultural eta ekologiko bat osatuz. Instalazio hauek suposatzen duten mendiaren industrializazioak arro osoko (mendi nahiz bailara) biztanleen bizi kalitatean eta herri nortasunean eragin ezkorra izango luke.

Landa eremuaren pobretzea ekarriko luke proiektu honek. Bizitzeko modu baten bukaera, lehendik nekez irauten duen nekazal eta abeltzain jardueraren desagertzea eta proiektuan aipatu ere egiten ez diren Pagoaga auzoa edota Arano herriaren bizirautea kolokan jartzea esaterako. Ezin dugu ahaztu eolikoak Hernaniko lurretan baina Aranori begira ezarriko direla.

INGURUGIROAN INPAKTUARI BURUZKOA

Aiako Harria, Urumea eta Leitzarango naturguneak elkartzen dituen korridorea arriskuan ikusten dugu proiektu honen gauzatzarekin (EAEko Korridore Ekologikoen Sarea). Izan ere, aurkeztutako proiektuak ezinbestean dakar pista luze eta zabalak irekiera, aerosorgailuak altxatzeko zanja sakon eta zabalak irekiera, hauen estaltzea eta lur mugimendu ikaragarriak sortutako beste hainbeste ondorio kaltegarri. Honek guztiak ingurugiroan eragin handiak izango ditu, aurkezten diren neurri zuzentzaileek konponduko ez dituztenak eta itzulezinak izango direnak.

Konplexu eolikoak eta honen ebakuazio azpiegiturak talka egiten dute Gipuzkoako Foru Aldundiak Azpiegitura Berdearen Sarea Planifikatzeko egindako Diagnostikoan (2019ko abendua) Urumeako mendien eremu honetarako planteatutako baso-birnaturalizazioko eta berreskurapen ekologikoko helburuekin (FEIG FITXA, GAB-DOTO-02 kodea)

LANDAREDIA. Proiektua bateraezina da mehatxatutako landarediaren babesarekin. Espainiako basa landaredi mehatxatuaren katalogoan neurri babeslean ezarri behar dira landare espezie hauek. Besteak beste, proiektuak eragiten duen eremuan bizi diren *Soldanella villosa* eta iratze endemikoaren *Vandenboschia speciosa* dira babestu beharreko bi espezie, lurtean betetze maila baxua dutenak eta biotopoaren aldaketan aurrean oso sentikorrek direnak. (Atlas y Libro Rojo de la Flora Vasculare Amenazada de España - Adenda 2017)

FAUNA. Aerosorgailuekin talka arrisku handia izango dute babestuta dauden eta eremu hauetan behatuak izan diren Miru Gorriak (*Milvus milvus*), Ugatzak (*Gypaetus barbatus*) eta tamaina ertain eta handiko beste hainbat hegaztiak, besteak beste, Sai arreak (*Gyps fulvus*) eta Hontz handiak (*Bubo bubo*).

Kontuan izan behar dira, arroan mendi gainetatik beheragoko ekosistemetan (baso, lur, erreka...) bizi diren beste ugaztun eta anfibiak ere. Oso sentikorrek diren espezieak dira eta hauen bizitokietan, ur eta lurren kalitatean sortuko diren alterazioak oso kaltegarriak izan daitezke beraiantzat. Ur satorra lekuko (*Galemys pyrenaicus*), uhandre pirinearra eta xaguxarrak (kiropteroak), kaltebera edo galzorian lez izendatuak.

AKUIFEROAK. Proiektu honetako parke eolikoak eta haren ebakuazio azpiegiturak bailarako ur masen kontserbazioa arrisku larrian jartzen dute, ur baliabide hauen kalitatea eta beren ekosistemen osotasuna kaltetuz. Gainera, proiektu hau gauzatzeko sortuko diren lur mugimenduek eta instalazioek eragin kaltegarria izango dute inguruko erreka eta iturburuetan. Urumearen ibilguan (lotura-interes bereziko ibai-zatia) eta Leitzaranean eta Jainkoaren eta Sagarretako erreken ibilguetan, bat egiten du galtzeko arriskuan dauden espezieen IBEarekin, hala nola igaraba, bisoi europarra edo Pirinioetako muturluzea.

ARKEOLOGIA ONDAREARI KALTEEI BURUZKOA

Adarratik Aranora bitartean mendi hegietan kokatzen diren historiaurreko monumentuen multzoan konpondu ezinezko kaltea eragingo du proiektu honek. Arano eta Goizueta artekoa kultura intereseko ondasun (KIO) bezala dago jasoa Nafarroako monumentu megalitikoaren katalogoan. Gipuzkoako aldean, berriz, Onddi Mandoegi Ierroa osatzen duena, Foru Aldundian Ondasun Kultural bezala dago erregistratua. Biak, historiaurretik honantz jarritako mugak kontuan izan gabe, inguruan den multzo megalitiko handiena osatzen dute, mendebalderago megalito hauen azken arrasto bakanak gelditzen direlarik. Proiektu honetan planteatzen diren aerosorgailuek eta hauek instalatzeko obrek, multzo megalitiko hau hondatuko dute, ondare arkeologikoa deuseztuz. Konturatu behar dugu, hilobi hauek daudenerako, inguru hauetan bizilekuak ere egongo zirela eta, gaur egun ezagutzen ez badira ere, mendi gain hauek bere osotasunean gure iraganaren lekuko direla.

OSASUNARENGAN ERAGINEI BURUZKOA

Orain arte martxan dabilzan instalazio eolikoetan (hemen aurkezten direnak baino tamaina txikiagokoetan) inguruetako biztanleengan duten eragina jasotzeko hainbat ikerketa egin izan dira munduan zehar. Hainbat patologia aipatzen dira batez ere soinuarekin eta argiarekin lotutakoak. Entzuten diren soinu eta entzuten ez diren infrasoinuek, uhin elektromagnetikoez, argiaren isla eta argiaren efektu keinukariek, bakarka edo modu sinergikoan, biztanleen hurbiltasuna eta esposizio denboraren arabera, patologia espezifikoak sorrarazten dituzte hauengan. Nerbio sistemarengan eraginak, loarekin arazoak eta osasun mentalearekin lotutakoak zehazten dira. Proiektuak ez du aipatu ere egiten, zentral eoliko honetatik metro gutxira, (500m.-1500m.) baserri batzuk eta Arano herria bera ere kaltetuak izango direla eta oro har, ez da eragin kaltegarri hauei buruzko azterketa serio eta sakonik egiten.

PROZEDURARI BURUZKOA

Bukatzeko, proiektuaren inguruan egon den informazio gabezia, gardentasun falta eta jokaera makurra salatu nahi ditut. Informazio faltak herritarrak eskuak lotuta izan ditu, harik eta proiektu ikaragarri hau argitaratu den arte, helegiteak aurkezteko epe motz eta proiektu amaigabe eta beldurgarri honen aurrean herritarrak babesik gabe aurkituz eta proiektuaren nondik norakoetan parte hartzeko modurik gabe.

Proiektua bera suntsizailea dela deritzot, eta zalantzan jartzen dut legezkoa ote den, ikusirik makroproiektu bakarra dena bost konexio desberdinetan zatitua aurkeztu dela, bakarrean aurkezteak sortuko lukeen kontrako ebazpenaz jakitun.

Azaldutako guztiagatik, honako hau **ESKATZEN DUT**:

Alegazio hauek aurkeztu ondoren, aintzakotzat har daitezela, proiektuaren Aurreiazko Administrazio Baimen eskaera ezetsiz eta ingurumen inpaktuaren kontrako adierazpena eginez. Era berean, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituenak babestuta, alegazio eta eskaera hauei buruzko erantzun arrazoitu bat bidaltzeko eskatzen dut.

.....n, 2026koaren(e)an.

SINADURA: